

## “GIPUZKOAKO KONPOSTA” SALMENTA PROTOKOLOA

---

Prozedura honen helburua da araudi bat sortzea Gipuzkoan gaika biltzen den biohondakinarekin lortzen den konposta merkaturatzeko.

GHK-k irizpide hauen arabera merkaturatuko du Gipuzkoan gaika bildutako biohondakinari tratamendu aerobikoa eman ondoren lortzen duen produktua, “Gipuzkoako Konposta” bezala ezagutua:

- Gipuzkoako Konpostaren hartzaille nagusiak erakunde publikoak izango dira hau da, Mankomunitateak, Udalerriak, Foru Aldundia edo hauen sozietate publikoak. Hauek izango dute konposta erosteko lehentasuna eta baita erakunde hauentzat lan egiten duten enpresek ere.
- Konpost-eskaintza erakunde publikoen eskaria baino handiagoa denean soilik salduko zaie konposta enpresa pribatu eta partikularrei.
- Gipuzkoako Konposta jabari publikoko eremuetan erabili beharko da.
- Gipuzkoako Konposta eskuratzeko, [www.GHKinfo.com](http://www.GHKinfo.com) webgunean eskuragarri dagoen “Erosketa-inprimakia” bete beharko da .
- Konposta erosteko inprimakiarekin batera, produktuaren sustatzaileak edo azken hartzailleak (erakunde publikoak), beharrezko duen konpost kopurua eta horren erabilera zein xedea adierazi beharko ditu; halaber, zerbitzua emango duen enpresa kontratistaren izena ere zehaztu beharko du.
- Behar bezala betetako erosketa-inprimakia eta organismo publikoaren frogagiria GHKra bidali beharko dira, hauetako bideren bat erabiliz: 943 504949 fax zenbakira, [info@ghksa.net](mailto:info@ghksa.net) helbide elektronikora, edo posta arruntez, helbide honetara: GHK,S.A.U. Ibaiondo poligonoa 27-3 20120 Hernani.
- Gipuzkoako Konpostaren salmenta eskaerak egiten diren ordena kronologikoan egingo da. Dena den, stock-kopuruaren arabera bidaliko da. GHK-k, bestalde, eskubidea izango du konpostaren banaketa erregulatzeko, merkatuaren unean-uneko beharren arabera.
- Ezingo da inola ere konposta hirugarrenei saldu edo eman.

Gipuzkoako Konposta plantatik ateratzen denean, dagokion albarana luzatuko da, eta hemen igorritako konpostaren pisua eta horri dagokion sorta zehaztuko da. Era berean, Ongarriei buruzko 506/2013 Errege Dekretuak eskatzen duen dokumentua atxikiko zaio albaran horri.

## PROTOCOLO DE VENTA DE COMPOST “GIPUZKOAKO KONPOSTA”

---

El objetivo de este procedimiento es la creación de una normativa que regule la comercialización y venta del compost, elaborado a partir del biorresiduo recogido selectivamente en Gipuzkoa.

GHK comercializará el producto obtenido del tratamiento aeróbico del biorresiduo según los siguientes criterios:

- Los destinatarios del compost “Gipuzkoako Konposta” serán las entidades públicas de Gipuzkoa, tanto Mancomunidades como Ayuntamientos, Diputación o cualquier sociedad pública de las mismas. Podrán, además, solicitar la compra del compost aquellas empresas que realicen servicios para dichas entidades.
- Sólo en el caso de que la oferta superara la demanda de dichas entidades públicas, se proporcionará el compost a empresas privadas o particulares.
- El compost deberá ser destinado a espacios de dominio público.
- Para adquirir el compost “Gipuzkoako Konposta” se deberá cumplimentar el formulario “Solicitud de Compra de Compost” disponible en la página [www.GHKinfo.com](http://www.GHKinfo.com).
- Junto a la solicitud de compra de compost, el promotor o destinatario final del producto (entidad pública), deberá acreditar el destino, uso, y cantidad de compost necesario, así como el nombre la empresa contratista que realiza el servicio.
- Tanto el documento de solicitud cumplimentado como el documento acreditativo del organismo público deberán ser remitidos a GHK por cualquiera de los siguientes medios: por fax al 943 504949, por correo electrónico a **info@ghksa.net** o por correo postal a la siguiente dirección: GHK,S.A.U. Polígono Ibaiondo 27-3, 20120 Hernani.
- La venta del compost se realizará siguiendo el orden cronológico de solicitud. No obstante, la expedición del producto se realizará en función del stock existente en planta y GHK se reserva el derecho de regular la distribución del compost en función de las necesidades del mercado.
- En ningún caso se puede revender o ceder el compost a terceros.

A la salida del producto se suministrará el albarán correspondiente en el que se detallará el peso del compost expedido y el lote al que corresponde. Dicho albarán irá suplementado con el documento de acompañamiento exigido por el RD 506/2013 sobre productos fertilizantes.